

# Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

## X. mendeko Lady Di

CHRIS 73

WWW.HERITAGE-KEY.COM



WESSEX (INGALATERRA), 910. Eadgyth (edo Edith) printzesa, Ingalaterrako Eduardo I.a Zaharra erregearen eta Ealhswith erregina-  
ren alaba, jaio zen.

Hemeretzi urte zituela, bere anaia Athelstan erregeak egungo Alemaniara bidali zuen, Algi-  
va ahizparekin batera. Athelstanen asmoa bi  
erresuma saxoien arteko aliantza bultzatzea  
zen, eta bere bi arrebak Saxoniako dukeari  
bidali zizkion, hark bietako bat aukera zezan.  
Dukeak, geroago Otto I.a Erromatar-Germani-  
ar Inperio Sainduko enperadorea izango  
zenak, Eadgyth aukeratu zuen eta urte horre-  
tan bertan, 929an, ezkondu ziren.

Hurrengo urtean Liudolf semea jaio zen,  
Suabiako dukea izango zena, eta urte batzuk  
geroago Liutgarde alaba. Eadgyth enperatri-  
za 946. urteko urtarrilaren 26an hil zen, 35  
urte zituela.



Ezkerrean, Otto I.a eta  
Eadgyth errege-erreginen  
eskultura, Magdeburgoko  
katedralean. Eskuinean,  
erreginaren sarkofagoa.

2008an, Magdeburgoko  
(Alemania) katedralean  
lanean ari zen arkeologo tal-  
deak harrizko sarkofago bat  
aurkitu eta ireki zuen.  
Barruan berunezko hilkutxa  
zegoen, eta horren barruan  
gorpu baten arrastoak, zeta-  
tan bildua. Berunezko  
kutxaren idazkunaren ara-  
bera, gorpua Eadgythena

zen, 1510. urtean berriro hilobiratu. 2009an  
hainbat azterketa egin zituzten Magdeburgon  
bertan, eta aurten arrastoak Bristolera (Ingala-  
terra) eraman dituzte gorpua erreginarena zela  
baieztatuko duten testak egiteko asmoz: isoto-  
poen bidez, hortzak Wessex inguruan jaiotako  
pertsone batenak ziren ala ez ondorioztatu ahal  
izango dute.

Arrastoak aztertzen ari diren nazioarteko  
lantaldearen buru eta Bristoleko Unibertsitate-  
ko irakasle Mark Horton-en esanetan, emai-  
tzak baieztatuz gero “Ingalaterrako errege-  
famiariako kide baten gorpua osoaren arrasto  
zaharrenak genituzke”.

Hortonen aburuz, atzeritik etorritako erregi-  
na oso ezaguna eta maitatua izan zen inperioan,  
bere eskuzabaltasunari eta karitate obrei esker.  
“Emakume ederra zen, dohainez betea, duela  
mila urteko Galesko Diana baten modukoa”.

## Arrastoak

### Jurasikoaren koloreak

*ANCHIORNIS HUXLEYI* hegaztien  
eta dinosauroen arteko animalia  
espezieak –izenak “ia hegaztia”  
esan nahi du– zer kolore zituen  
ondorioztatu berri dute Pekineko  
(Txina) Historia Naturaleko  
Museoko kideek. Berriki aurkituta-  
ko eskeletoaren melanosomak  
–melanina pigmentua gordetzen

dutenak– aztertu, egungo hegaz-  
tien lumetako melanosomekin  
alderatu, eta espeziearen kromatis-  
moa berregin dute: enborra gris  
iluna edo beltza zuen; hegoetan  
luma luze zuriak, marra beltzekin;  
burua pikartatua eta isats marroi  
luzea, eskuineko marrazkian ageri  
den moduan.



WWW.UTEXAS.EDU